

hitza

Astelehena, 2014-09-22

GOIERRIKO hitza
Goierriko albisteak

Nabigazioa ☰



Igandean 20 urte beteko ditu Zeraingo Azoka Ekologikoak

by **Goierriko Hitza** on 2014/09/19 in **EKONOMIA, GIZARTEA**

Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren 20. Azokak 50 postu inguru bilduko ditu etzi Zerainen. Denetariko produktu ekologikoak egongo dira salgai, 10:00etatik 14:30era; besteak beste, barazkiak, fruta, ogia, gazta, sagardoa, ardoa, olioak, txerrikiak eta germinatuak. Gipuzkoako ekoizleak izango dira erdia baino gehiago, baina Zerain ingurukoak ere gerturatuko dira.

Produktu ekologikoez gain, tailerrak eta erakusketak ere izango dira goizean zehar. Haurrek, esaterako, gozoak egiten eta baratzean landatzen ikasteko aukera izango dute. Helduek, berriz, sendabelarrekin ukenduak egiten. Bestalde, Goierriko artisauak ere izango dira, keramika, makilak, kandelak, tailak... egiten.



Xapre trikitilariak girotuko du azoka. Eta jan edana ere ez da faltako. Pintxo ekologikoak jateko aukera izango da, eta baita aintzinako eran ekoiztutako sagar muztioa edatekoa ere. Horrez gain, gazta eta sagardo dastaketa izango dira Guillermo Castañoren eskutik.

20. urteurrena ospatzeko, zozketa ere egingo dute aurten. Batetik, bi otar ekologiko zozkatuko dituzte. Bestetik, gau bat Tellerine baserrian. Sari hori lortzen duenak Ohiarte sagardotegian afaltzeko aukera ere izango du.

Azoka goizean amaitu arren, arratsaldean jarraituko du jaiak. Aurreko urteetan bezala, kirol ekitaldiak antolatu dituzte. Seiak aldera, giza proba desafioa izango da. Astigarragako nesken taldea Zeraingo mutil gazteen aurka arituko da, 550 kiloko harriarekin, zeinek plaza gehiago egin. Jarraian, aizkolariek eskainiko dute ikuskizuna. Txanda librean arituko dira, kana erdiko sei enbor ebakitzen.

Zerainera joaten denak, egun osoko egitarauaz gain, herriko ondarea ezagutzeko aukera ere izango du. Denen eskura izango dira Herri Museoa, diaporama, Larraondoko zerrategia, kartzela eta Aizpitta adieraztegia.

Hamabostaldi ekologikoa

Aurten zazpigarren urtez, Goierriko Bizitza eta Nekazaritza Ekologikoaren Hamabostaldia antolatu dute Zeraingo azokaren harira. Irailaren 23tik urriaren 4ra hitzaldiak, tailerrak eta bisitak izango dira Albatzisketan, Olaberrian, Ordizian eta Zerainen. «Ekologiaren inguruko eremua ahalik eta zabalena izaten saiatzen gara», esan du Danel Etxeberria Goierriko Baratzako ordezkariak.

Hitzaldi guztiak doakoak izango dira. Jakoba Errekondok egingo du lehena: *Zure landareak modu ekologikoan zaindu*. Landareak produktu kimikorik erabili gabe nola zaindu azalduko du usurbildarrak, euskaraz. Garbiñe Etxanizek, berriz, elikadura makrobiotikoaren inguruko azalpenak emango ditu *Que el alimento sea tu medicina y la medicina tu alimento* hitzaldian (gaztelaniaz). Esklerosi anizkoitza du Etxanizek, eta bere esperientziaren berri emango du.

Azken hitzaldian Goiener proiektua aurkeztuko dute: . Eguzki energiaren garapenaz, energia berriztagarriez eta alternatiba ezberdinez arituko dira, besteak beste.

Bi tailer ere antolatu dituzte. Irailaren 27an izango da lehena, eta parte hartzaileek ilargiak eta planetek baratzen duten eragina ikasiko dute Xabier Akizuren eskutik. Bigarren tailerrean, berriz, pate naturalak nola egin, kontserbatu eta prestatu irakatsiko du Martin Mujikak.

Azkenik, Olaberriako Etxeberria-Goikoa baserrira bisita egiteko aukera ere izango da. Haragi eta esne ekologikoa nola ekoizten dituzten erakutsiko dute, eta probatzeko ere emango dituzte.

Tailerretan edo bisitan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da 943 08 74 98 telefonora deituta. Tailerren salneurria 15 eurokoa da; bisita, berriz, doakoa.

Herritarrenganako esker ona

Gipuzkoako lehen azoka ekologikoa da Zerainen urtez urte egiten dena, eta antolatzaileak gustura agertu dira izandako garapenarekin. « Harro gaude urtetik urtera gero eta egitarau potoloagoa sortzeko gai garelako; dagoeneko, azoka bat baino gehiago da», adierazi du Jakoba Errekondo Zerain Dezagun Fundazioko teknikariak. «Ekologiaren ideia gero eta hedatuago dago».

Zerain Dezagun Fundazioarekin batera, Biolur Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarteak eta Goierriko Baratzak antolatzen dute Zeraingo azoka, elkarlanean. Herritar askok ere haien laguntza eskaintzen dute, eta esker ona adierazi du Juan Mari Iztueta Zerain Dezagun Fundazioko ordezkariak: «85 pertsona inguru ariko dira postuak jartzen, trafikoa bideratzen... lan handia egiten dute».

EGITARAUA

Igandeko azoka

- Goizean. Azoka ekologikoa, tailerrak, ikuskizunak, pintxo ekologikoak, artisautza, sagar muztioa, erakusketak, gazta eta sagardo dastaketa eta erromeria Xapre trikitilariarekin.
- Arratsaldean. Giza proba desafioa. Astigarragako (Gipuzkoa) nesken taldea Zeraingo mutil gazteen aurka, 550 kiloko harriarekin. Ondoren, aizkolariek sei kana-erdiko enbor ebakiko dituzte txanda librean. Jarraian, erromeria.

Hamabostaldia

- Irailak 23, asteartea. Hitzaldia: Zure landareak modu ekologikoan zaindu. Jakoba Rekondo. Zeraingo Kultur Etxean, 19:00etan.
- Irailak 25, osteguna. Hitzaldia: Janaria zure sendagaia izan dadila, eta sendagaia zure elikagai (gaztelaniaz). Garbiñe Etxaniz. Ordiziako D'Elikatuz zentroan, 19:00etan.
- Irailak 27, larunbata. Tailerra: Baratzako lanak Ilargiarekin. Xabier Akizu. Ordiziako D'Elikatuz zentroan, 09:00etatik 14:00etara.
- Irailak 30, asteartea. Hitzaldia: Energia-eredu berri baten alde. Zer da Goiener?. Zeraingo kultur etxean, 19:00etan.

- Urriak 2, osteguna. Haragi eta esne ekologikoa ekoizten dituen Olaberriako Etxeberri-Goikoa baserria ikusteko bisita. 17:00etan.
- Urriak 4, larunbata. Tailerra: Ikas ezazu pate begetalak egiten. Martin Mujika. Albatzisketan, 10:00etan.

BERRI HONEKIN LOTUTA:

◦ [Kalitatezko Zerain](#)

📍 **azoka ekologikoa, egitaraua, hamabostaldia, hitzaldiak**

◀ Urretxuko jaietara joateko autobus zerbitzu berezia

Goierriko Manifestua, enegarren manifestua ▶

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email

Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It



Zer aurkitu nahi duzu?

Bilatu...

Bilatu



mixikua.com

deskontua

%16

50,00 €

Eskaintza ikusi

INKESTA

Zer iruditzen zaizu dende eta merkatalguneek igande eta jai egunetan zabaltzeko aukera izatea?

- ☐ Ondo
- ☐ Gaizki
- ☐ Berdin dit

Bozkatu

[Ikusi Emaitzak](#)

EUSKAL JAIETAKO AZOKA ORDIZIAN –ARGAZKIAK: CARLOS MEDIAVILLA–



GUTUNAK

Goierriko Manifestua, enegarren manifestua

Irailaren 19rako antolatu du Kontseiluak ekitaldia, euskararen gainean...

Murtziako espetxetik

Aupa lagunak! Urtero bezala iraila badator eta jende gehienari betiko...

BIDEOAK



Dantzariak Urretxuko Euskal Jaian. 2014 iraila

6:25



Kantariak eta The Sparteens Urretxuko jaietan. 2014 iraila

4:53



Alustiza-Salamero erakusketa Zumarragan. 2014 iraila

1:57

LABURRAK

Pasabidearen erakusketa ordu batzuk aldatu dituzte

Aizkorrin Barrena martxan izena emateko aukera


120 lagunek eman dute izena Erreka Egunerako

Urola klubak neskei izena emateko deia egin die

Gazte Txokoan ate irekien eguna egingo dute gaur

[Irakurri guztiak](#)

BLOGARIAK



THE INDEZENTS

Folklore eta euskara: Hobe lagun bikote baino: Datorren larunbatean (hilak 27) ospatuko da lehen aldiz Beasainen Mutur Beltz Eguna eta egitaraua ir...



JOSU MAROTO

irizar: Opor aurretik goiberrirako eginiko ilustrazioa. IrizarUltima ilustración antes de vacaciones para G...



GARAGARDO AHOTSA

Wakatau lupulua: Denbora asko pasa da iada azkeneko aldiz lupulu barietate baten inguruan aritu garela blogean. Gaurk...



TXAPIS OTEGI

14:59: Filed under: klik! Tagged: argazkia, Donostia, klik, txuri/beltz...



SMITHYREN BLOGA

MONTGRI MENDIGUNEAREN INGURUKO MENDIETATIK, 2014/08/20: Mendizaleok asegabeak gara eta gaur honaino irixten bagara hurrengoan pixkar urrutirago joan nahi iz...



ZINGI-ZANGO

2014-2015 bertso ikasturtea: Legazpiko Bertso-Olariek jakinarazi digutenez, Urriaren 3an ekingo diote 2014-2015 ikasturteari. LH5...



TTIKLIK

Kimutx egitasmoaren ekarpen berria: Kimutx proiektuak aurrera pausu bat eman du eta ZeinuTX: Kimutx ipuin-sorta zeinuz, irudiz eta ahots...

harpidedunen
TXOKOA

GOIERRIKO

GOIBERRI

BILATU



HERRIAK

[Altzaga](#) | [Arama](#) | [Ataun](#) | [Beasain](#) | [Ezkio-Itsaso](#) | [Gabiria](#) | [Gaintza](#) | [Idiazabal](#) | [Itsasondo](#) | [Lazkao](#) | [Legazpi](#) | [Legorreta](#) |
[Mutiloa](#) | [Olaberria](#) | [Ordizia](#) | [Ormaiztegi](#) | [Segura](#) | [Urretxu](#) | [Zaldibia](#) | [Zegama](#) | [Zerain](#) | [Zumarraga](#)


ZORION AGURRAK



Amona Paka

88 urte! Zorionak amona Paka!! Onena zara!

[irakurri gehiago »](#)



Ekhi Arrondo Azkona

2 urte! Zorionak artista! Aittona, amona, Gorka eta Ainararen partez. Muxu potolo asko!!!

[irakurri gehiago »](#)

Guztiak irakurri

ESKELAK

Antonio Alustiza Telleria

Marcos Jauregi Begiristain

Guztiak irakurri

EGURALDIA

Gaur	Max	Mín
	21°C	13°C
Bihar	Max	Mín
	17°C	9°C
Asteazkena	Max	Mín
	19°C	6°C

© Tutiempo.net

Más »

BERRIKETAN.INFO



[Unai Oiartzun](#)

posted an update

[32 minutes ago](#)

FUTBOLA: Luzapenean eta penaltiz jaso du Real Unionek berdinketa <http://kiroletikblog.blogspot.com.es/>



[Amaia Larruzea](#)

posted an update

[13 hours, 23 minutes ago](#)

POST!!! Arratiara hurbildu gara gaurkoan, Areatzako mendi martxara!! 😊
AREATZAKO MENDI MARTXA | MENDIALDIAK



[Unai Oiartzun](#)

posted an update

[17 hours, 53 minutes ago](#)

ARRAUNA: Koroa jantzi du Ama Guadalupekoak <http://kiroletikblog.blogspot.com.es/>

POPULARRAK

EKARPENAK

- Beasaingo Gure Esku Dagokoek giza katea egin zuten atzo, Diadarekin bat egiteko
2014/09/12

- Eskoziako erreferendumaren harira, GEDk deituta mosaikoa egingo dute bihar Beasainen
2014/09/17

- Tontorreko bideari ekiteko gogoz

2014/09/18

- Abendurako bukatuko dituzte N-I errepidera doan Agerre bideko lanak

2014/09/18

- Udaltzera mendi irteera egingo dute ordiziarrek

2014/09/18

WEBGUNE LAGUNAK:

- lasterketak.com
- txindokiat.com
- [emaneurre](http://emaneurre.com)
- zingizango.com
- lazkaotarrok.org
- zaldibia.org
- seguragoierri.net
- ormaiztegi.org

EHUNMILIAK 2014

EHUNMILIAK

GOIERRIKO **hitza** Asteazkena, 2014ko uztailaren 9
Testuak: Aimar Maiz, Enertx Maiz, Onintza Lete, Eskeine Legorburu


» EHM

Luzera: »168 km
Desnibela: »11.000 m
Irteera: »18:00

» G2H

Luzera: »88 km
Desnibela: »6.000 m
Irteera: »23:00

www.ehunmilak.com



Goranzko bidean

 Otaizabal Aroztegia, S.L. Saibatore Auzoa, Izarraitz industriagunea, Tel./Faxa: 943 160 684 Sakelakoa: 639 645 253/605 757 623 otaizabal@telefonica.net 20200 BEASAIN (Gipuzkoa)	 natx Dietetika-Belardenda Medikuntza orokorra, Txinako medikuntza tradizionala, Kirol masajea, Masaje terapeutikoa, Dietista-nutrizionista, Etikagaien baloraziozintasuna, Entrenatzaile pertsonala. Kale Nagusia, 15 BEASAIN tel.: 943 08 91 15 
---	--

IDIAZABAL GAZTA



IDIAZABAL GAZTA

GOIERRIKO hitza

Astelekuena, 2014ko apirilaren 23a
Testuak: Iñaki Badiola eta Eskerle Ligorburu

Ibilian egiten da bidea

azoka

EUSKADI

URTEKARIA 2013



URTEKARIA 2013

GOIERRIKO hitza

Osteguna, 2013ko abenduaren 19a
Testuak: Iñaki Arando





PAPERKOA 2014-09-19

- Igandean 20 urte beteko ditu Zeraingo Azoka Ekologikoak
- Martin Garitano Beasainen izan da, herritarren



proposamenak jasotzen

- Oteizaren lana berridatzi du Mendizabalek Sao Pauloko Bienalean
- «Coaching-aren xedea pertsonen euren helburuak lortzen laguntzea da»

KIROLA

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

- ▶ Eneko Garin eta Maider Uhanue izan dira irabazle Zaldibiako Herri Lasterketan
- ▶ Ekitaldiz betetako asteburua ospatzen ari dira Lazkaon

GOIBERRI 115. ZENBAKIA

- Hator Argentinara
- «Kantu afarian eta



Gorostiegako erromerian parte hartuko dut»

- Sirenaren dardara
- «Oporretarako Urbiako Dominikan txabola»
- Trenak 150 urte

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

- Viaxes Amarelle izango du aurrean bihar Estanda Ordiziak
- Ordizia-Gernika derbia jokatu da igandean Altamiran

KULTURA

- Urriaren 3an hasiko dute ikasturte Legazpiko bertso eskolakoek
- Kirmen Uribe izango du bidelagun Easo abesbatzak etzi, Antion
- Rogelio Botanzek errondailarekin abestuko du larunbatean
- Alustiza, Salamero, pintura, poesia eta panpinak

AISIA

- Arana-Bideluze auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan
- Hamalau kuadrilla ari dira herri kirol lehiak Ordiziako plazan
- Auzoko festak ari dira ospatzen Hegialden, Legazpin
- Erdi Arora salto egin dute Ordizian

GIZARTEA

- Ekitaldiz betetako asteburua ospatzen ari dira Lazkaon
- Urola ibaia garbitzen emango dute goiza dozenaka lagunek Legazpin
- Pasabidearen bilera egingo du udalak Lazkaomendiko auzotarrekin
- Ikatz txondorra piztuko dute igandean Lizarrustin

EKONOMIA

- Ner Eguna ospatzen ari dira Idiazabalen
- Igandean 20 urte beteko ditu Zeraingo Azoka Ekologikoak
- Koldo Saratxagak Ataunen hitzaldia egingo du ostegunean
- "Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian" dokumentalaren estreinaldia, Ordizian

POLITIKA

- Herrien erabakitzeke eskubidearen alde
- Eskoziako galdeketaren oihartzunak iritsi dira Goierriira
- Preso eta iheslarien aldeko garagardo festa, gaurtik etzira
- Eskoziako erreferenduma babesteko, Legorretako Udalak elkarretaratzera deitu ditu herritarrak biharko

Goierriko Hedabideak S.L.
Oriamendi 32, 20200 - BEASAIN- Tel.: 943 16 00 56 - Faxe 943 889 612 / Iparragirre, 11 20700 - URRETXU - Tel:
943 72 34 08 - E-posta: goierri@hitza.info



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Webgune honek bat egiten du Creative Commons erabilera lizentziarekin.